



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO UZTAILAREN 10AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Uztailaren 10ean, eguadiako 14:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz, alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Alaia Etayo, Julen Beunza, Iker Isiegas eta Javier Auza.

BERTARATU EZ DIRENAK: Micaela Elizalde eta M^a Mar Ansorena

14:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dagoen gai bakarri lantzeari ekin diote bildutakoek.

GAI ZERRENDAA

1.- Pediatra zerbitzu gabeziaren inguruko mozioa eta eskaera Osasunbidera.

Alkateak aditzera ematen du Ultzamako Osasun eremuan ekainetik pediatra zerbitzurik ez dagoela eta bilerak izan dituela osasun eremuko beste udaletako alkateekin, egoera larritzat jotzen dutelako guztiek eta Osasun Kontseilari egoeraren berria ematea adostu dute eta zerbitzua berriro ezartzeko eskatuz. Horretarako ondoren transkribatzen den mozioa irakurtzen du:

“Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremua, Anue, Lantz, Odieta, Basaburua eta Ultzamako Udalek osatzen dute, 4000 biztanleko biztanleria du eta despopulatze arriskuan dago.

Oinarrizko zerbitzuen artean, ezinbestekoa da gure osasuna zaindua izatea. Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuan bertan, artatuak izateko eskubidea bermatu

behar dugu. Hortaz, Osasun-Zentroak, behar diren profesionalak izan behar ditu uneoro.

Hala ere, zerbitzu honetan ditugun gabeziak nabarmenak dira. Batez ere, Pediatria postuaren ezegonkortasuna. Egoera horrek segurtasun falta izugarria sortzen du, ez baitakigu noiz egongo den Pediatria eta noiz ez. Ekainaren 20az geroztik, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuan, ez daukagu Pediatria Zerbitzurik, eta horrek hutsune eta arazo ikaragarria sortzen digu. Iruñeraino joan behar horrek dakartzan eragozpen eta zailtasun guztiekin.

Kontuan izan behar da Oinarrizko Osasun Eremu honetan 0-14 urte bitarteko 400 haur bizi direla. Egoera honen ondorioz, haur eta gazte hauen oinarrizko eskubide unibertsala, osasun zaintza, erabat urratua da.

Arrazoi hauengatik, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko gurasoen kezkekin guztiz bat gatoz.

Hau guztia kontuan hartuta, eta arazoa aspalditik maiz errepikatzen dela ikusita, Basaburuko Udalak

ERABAKI DU:

1.- Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari eskatzea beharrezko baliabide guztiak jar ditzala Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko Pediatria Zerbitzua ahalik eta lasterren martxan egon dadin, une honetan sortutako hutsunea betez.

2.- Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari egoera hori behin betiko ebazteko eskatzea, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko Pediatria lanpostua eta zerbitzua egonkortuz eta bermatuz.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa eta Osasun Departamentura helaraztea eta Osasun Kontseilari helaraztea agintzen dute

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 14:30ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.